

# Fernando
# García Alegría

Arabako Arte Ederren Museoan
en el Museo de Bellas Artes de Álava

**Koordinatzailea / Coordina**

Sara González de Aspuru Hidalgo
Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

AARE Servicios Culturales

**Testuak / Textos**

Ana Arregui Barandiaran
Cristina Armentia Alaña

**Testuen itzulpenak / Traducción de textos**

Arabako Foru Aldundiaren Euskera Zerbitzua
Servicio de Euskera de la Diputación Foral de Álava

**Zaharberrikuntza / Restauración**

Arabako Foru Aldundiaren Zaharberrikuntza Zerbitzua
Servicio de Restauración de la Diputación Foral de Álava

**Argazkiak / Fotografías**

© Gert Voor in´t Holt
© Arabako Arte Ederren Museoa / Museo de Bellas Artes de Álava
© Biblioteca Museo de Bellas Artes de Bilbao

**Diseinua / Diseño**

Hélice Creativos

**Argitaratzailea / Edita**

Arabako Foru Aldundia
Kultura eta Kirol Saila

Diputación Foral de Álava
Departamento de Cultura y Deporte

**Inprimatzailea / Impresión**

Arabako Foru Aldundiaren Moldiztegia
Imprenta de la Diputación Foral de Álava

**Agradecimientos / Esker onak**

Amelia Goicoechea Martínez

**Lege gordailua / Depósito legal**

LG G 00318-2020

▶
Fernandoren karikatura
Caricatura de Fernando
*El Pueblo Vasco*, 1924-III-13

# Fernando García Alegría

Arabako Arte Ederren Museoan
en el Museo de Bellas Artes de Álava



Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

En 2020 se celebra el 125 aniversario del nacimiento del pintor Fernando García Alegría, o Fernando, tal y como firmaba sus obras. El hecho añadido de que en 2019 el Museo de Bellas Artes de Álava haya recibido una donación de dos de sus obras provenientes del ámbito familiar (los retratos de su esposa Irene Manzaneque y de su hija Nieves García) ha motivado su presentación en una exposición de gabinete, acompañada de este breve estudio sobre su figura. Las dos obras, donadas por Amelia Goicoechea Martínez tras el fallecimiento de María Nieves García, única hija de Fernando, vienen a completar la presencia de este autor en el museo, representado hasta ahora a través del lienzo *Pensativa*, correspondiente a una etapa de juventud del artista.

Fernando nace en Bilbao en 1895 [1], en una familia con inquietudes artísticas. Su padre, Salvador, era joyero y poseía un taller-tienda en la calle Correo de la capital vizcaína. Inicia sus estudios en el Colegio San Antonio, en pleno casco viejo bilbaíno, y más tarde en el Instituto de Segunda Enseñanza. Sin embargo, hacia 1910, la familia decide abandonar Bilbao e instalarse en Buenos Aires, donde el padre se establece como joyero. Es allí también donde Fernando comienza a asistir a una academia de dibujo, ya que sentía verdadera afición artística. Buenos Aires le permite conocer la pintura internacional con sus visitas a la Galería Witcomb, una de las más famosas y donde se exhibían importantes colecciones de pintores europeos y especialmente españoles.

Desde finales del siglo XIX las exposiciones de arte español comenzaron a ganar un lugar de privilegio en Buenos Aires, de la mano de los marchantes José Artal y José Pinelo. Los festejos del Centenario argentino en 1910, incluyeron la organización de una Exposición Internacional de Bellas Artes de gran magnitud, celebrada como parte del evento. La selección española fue de las más destacadas y entre los artistas destacaron

1 Fue bautizado el 3 de noviembre de 1895 con los nombres de Fernando Julián Simeón en la parroquia de San Nicolás de Bari de Bilbao. Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia. ES/AHEB-BEHA/F006.079 (0657/002-00).





*Pentsakorra.* 1918 aldera
*Pensativa*. Hacia 1918
Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

Ignacio Zuloaga y Hermen Anglada Camarasa, los grandes triunfadores. El impacto de este último en el arte argentino tuvo un reflejo inmediato tanto en compradores como en artistas locales que se hallaban en periodo de formación. Se empaparon de la estética decorativista de Anglada, de las corrientes de las artes primitivas orientales y africanas que estaban en boga y de la estética de los Ballets Rusos [2]. Fernando conoce la obra del pintor catalán en este ambiente y va a estar muy influido por ella, sobre todo en su en su primera época [3].

La familia decide regresar a Bilbao hacia 1915 pero Fernando retrasa su viaje hasta 1916 por motivos económicos y se queda trabajando como dependiente en una joyería; combina el trabajo con su formación como pintor. Cuando vuelve a Bilbao, con 21 años, su vocación artística debe de estar definida y clara ya que decide ingresar en la Asociación de Artistas Vascos de Bilbao, la más importante organización artística del momento y a la que Fernando continuará vinculado hasta su disolución, ya con el estallido de la Guerra Civil [4].

La situación artística en Bilbao era complicada; es verdad que existía una importante actividad expositiva y de artistas, pero lo cierto es que no había un gran movimiento de ventas. Mourlane Michelena refleja acertadamente esa lucha para salir adelante en el mundo artístico: *«Los artistas vascos se mueven en la mayor soledad. Perseverantemente levantan su obra. Dilapidan su caudal de entusiasmo e inteligencia. Pero nadie les estimula. Se les*

2 GUTIÉRREZ VIÑUALES, Rodrigo, «Ignacio Zuloaga y Hermen Anglada Camarasa. Presencia en el Centenario y proyección en la Argentina» en *El reencuentro entre España y Argentina en 1910. Camino al Bicentenario.* Cedodal, Junta de Andalucía, Buenos Aires, 2007, pp. 87-92, p. 91.

3 Hermen Anglada Camarasa (1871-1959) se instala desde 1894 en París y allí se imbuye del espíritu más cosmopolita y bohemio de la ciudad. Su estilo se caracteriza por su peculiar interpretación del colorido, de las luces y las sombras, así como del sentido lineal de las figuras, unido a una factura pictórica peculiar con una gran densidad matérica en muchas ocasiones. https://www.museodelprado.es/coleccion/artista/anglada-camarasa-hermenegildo/63458654-6d71-4668-be41-96e5dc6f5418 [consulta 14/12/2019].

4 Era socio desde ese mismo año con el número 17. GARCÍA, María Nieves, *Memorias de la hija de un artista*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1985, p. 251.



2020an, Fernando García Alegría margolariaren –edo Fernandoren, horrela sinatzen baitzituen bere obrak– jaiotzaren 125. urteurrena ospatzen da. Gainera, 2019an, Arabako Arte Ederren Museoak margolariaren bi artelan jaso zituen dohaintzan, familia ingurunetik (Irene Manzaneque emaztearen eta Nieves García alabaren erretratuak); margolan horiek aurkezteko asmoz, kabinete-erakusketa antolatu da, margolariari buruzko azterlan labur honekin batera. Fernandoren alaba bakarra zen María Nieves García hil ostean Amelia Goicoechea Martínezek dohaintzan emandako artelan biek osatu egiten dute egilearen presentzia museoan, orain arte *Pentsakorra* mihisea –artistaren gaztarokoa– izan baita bere artelanaren adibide bakarra.

Fernando Bilbon jaio zen, 1895ean [1], kezka artistikoak zituen familia batean. Bere aita, Salvador, bitxigilea zen, eta denda-lantegi bat zuen Bizkaiko hiriburuko Posta kalean. San Antonio ikastetxean hasi zen ikasten, Bilboko Alde Zaharraren erdi-erdian, eta gero, Bigarren Hezkuntzako Institutuan jarraitu zuen. Hala ere, 1910. urtearen inguruan, Bilbo uztea erabaki zuen familiak, eta Buenos Airesera bizitzera joan ziren, non aitak bitxi-denda ireki zuen. Bertan egonda, Fernando marrazki akademia batean ikasten hasi zen, artearekiko benetako zaletasuna sentitzen zuelako. Buenos Airesen nazioarteko pintura ezagutzeko aukera izan zuen, Witcomb Galeriara egiten zituen bisitetan; izan ere, galeria ospetsuenetako bat zen, non Europako eta batez ere Espainiako margolarien bilduma garrantzitsuak erakusten ziren.

XIX. mendearen amaieraz geroztik, Espainiako artearen erakusketak toki pribilegiatua hartzen hasi ziren Buenos Airesen, José Artal eta José Pinelo arte-merkatariei esker. Argentinako Mendeurrenaren 1910ko ospakizunen baitan, Arte Ederren Nazioarteko Erakusketa oso handia antolatu zen, ekitaldiaren zati moduan ospatu zena. Espainiako artisten hautaketa

1 1895eko azaroaren 3an bataiatu zuten, Fernando Julián Simeón izenekin, Bilboko Bariko San Nikolas parrokian. Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa. ES/AHEB-BEHA/F006.079 (0657/002-00).


EL PINTOR "FERNANDO"

Silvio Lagoren artikulua *La Esferan* argitaratuta. 1918-IV-27
Artículo de Silvio Lago publicado en *La Esfera*, 27-IV-1918

*mira con desacato, con inquietud y de cuando en cuando se les ponen obstáculos en el camino. Yo no sé cómo tienen todavía fe para apretar el sueño incólume contra el corazón.»* [5]

Fernando realiza precisamente su primera exposición individual en el Salón de la Asociación de Artistas Vascos en octubre de 1916, el mismo año de su regreso de Argentina. Presenta 37 cuadros de temática variada pero centrada en las figuras de ballet, temas exóticos de raigambre oriental y andaluza y de cosmopolitismo parisino muy cercano a su admirado Anglada Camarasa y dentro de la enigmática órbita simbolista. Esta muestra le permitió darse a conocer en el ambiente artístico bilbaíno y recibir alguna crítica elogiosa:

«… *Fernando acaba de cumplir veinte años y sin embargo se nos revela ya como un mago de la línea del color, de la orientación decorativa, de la idealización de*

5 EGUILUZ, Blanca de, *El pintor Fernando García Alegría (1895-1952)*, Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbao, 2007, p. 35.



nabarmenenetako bat zen, eta margolarien artean, Ignacio Zuloaga eta Hermen Anglada Camarasa arrakasta handiko pintoreak azaldu ziren. Azken horrek Argentinako artean izan zuen inpaktuak berehala eragin zuen bai erosleengan, bai prestakuntza-aldian zeuden tokiko artistengan. Ongi jabetu ziren Angladaren estetika apaingarriaz, baita modan zeuden ekialdeko eta Afrikako arte primitiboetako mugimenduez eta Errusiako Balleten estetikaz [2] ere. Giro horretan ezagutu zuen Fernandok pintore kataluniarraren obra, eta horren eraginpean egon zen, batez ere, bere lehenengo aldi artistikoan [3].

1915. urte aldean familiak Bilbora itzultzea erabaki zuen, baina Fernandok 1916ra arte atzeratu zuen bere bidaia, arrazoi ekonomikoak direla medio, eta bitxi-denda batean geratu zen saltzaile gisa lanean; lana eta margolaritza-ikasketak batera egiten zituen. Bilbora itzuli zenean, 21 urterekin, bere bokazio artistikoa definitua eta argia egongo zen, Bilboko Euskal Artisten Elkarteko kide egin zen; izan ere, garai hartako antolakunde artistiko garrantzitsuena zen, eta Fernandok elkartekidea izaten jarraitu zuen, elkartea desegin arte (Gerra Zibila hasi zenean) [4].

Artisten egoera zaila zen Bilbon; egia da erakusketa asko egiten zirela, eta artisten jarduera intentsiboa zela; baina mugimendu gutxi zegoen, salmentei dagokienez. Mourlane Michelenak arrazoi osoz adierazi du

2 GUTIÉRREZ VIÑUALES, Rodrigo, «Ignacio Zuloaga y Hermen Anglada Camarasa. Presencia en el Centenario y proyección en la Argentina» en *El reencuentro entre España y Argentina en 1910. Camino al Bicentenario.* Cedodal, Junta de Andalucía, Buenos Aires, 2007, 87-92. orr., 91. or.

3 Hermen Anglada Camarasa (1871-1959) Parisen bizi zen 1894tik aurrera, eta bertan sartu zitzaion buruan hiriaren espiritu kosmopolita eta bohemioa. Kolore, argi eta itzalen interpretazio berezia da bere estiloaren ezaugarria, baita figuren noranzko lineala ere, askotan, faktura piktoriko bereziari eta materiaren dentsitate handiari lotuta. https://www.museodelprado.es/coleccion/artista/anglada-camarasa-hermenegildo/63458654-6d71-4668-be41-96e5dc6f5418 [2019-12-14an kontsultatua].

4 Urte hartatik aurrera, 17. kidea zen. GARCÍA, María Nieves, *Memorias de la hija de un artista*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1985, 251. or.

*formas, de la exaltación de la luz, de la estética quintaesenciada, de las elegancias, de los refinamientos….En este joven artista, el instinto suple a la práctica y el gusto a la educación.»* [6]

Durante 1917 y 1918 continúa con su actividad artística y expositiva, tanto en Bilbao como en Madrid, donde residirá por un tiempo en 1918. Allí acude como alumno no oficial a la Academia de San Fernando y frecuenta con asiduidad el Museo del Prado, especialmente las salas dedicadas a El Greco y a Goya. También en este momento su obra comienza a ser reconocida, al exponer a finales del mes de marzo en el madrileño Salón Lacoste y obtener la atención de la prensa. A raíz de esta muestra individual, que supone su presentación en la capital, aparecen reseñas sobre su exposición en varios diarios, una de ellas firmada por Antonio de Hoyos y Vinent, aristócrata, dandy y escritor madrileño representante de la corriente estética del decadentismo, hace una valoración muy positiva de sus cuadros [7]. Además, el semanal ilustrado La Esfera, uno de los más prestigiosos del país, le dedica una página completa con la reproducción de varias de las obras presentes en la exposición, entre ellas, las que titula *Abanico Madre*, *El té* y




*Gaua. La Noche*
La Esfera, 1918-IX-14

[6] MARTÍN DE RETANA, José María (editor), *Pintores y escultores vascos de ayer, hoy y mañana.* La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976, vol. XIII, fascículo 123, p. 59.

[7] «Noticias y sucesos» en *ABC*, 16-III-1918, p. 16; HOYOS Y VINENT, Antonio: «Fernando» en *El Día. Diario de la noche*, 23-III-1918.



artisten munduan aurrera ateratzeko borroka hori: *«Euskal artistek bakardade handienean mugitzen dira. Beren lana sortzen gogor saiatzen dira. Gogo handia eta adimena erakusten dute. Baina inork ez die adore ematen. Begirunerik gabe begiratzen zaie, kezkatuta, eta noizean behin oztopoak jartzen zaizkie bidean. Ez dakit nola oraindik baduten fedea ametsari kalterik gabe heltzeko, bihotzaren kontra.»* [5]

Hain zuzen ere, Fernandok Euskal Artisten Elkartearen aretoan egin zuen bere lehenengo bakarkako erakusketa, 1916ko urrian, Argentinatik itzuli zen urte berean. 37 koadro aurkeztu zituen, gai askotarikoak, baina bereziki balleteko figurak, ekialdeko eta Andaluziako jatorriko gai exotikoak, baita bere Anglada Camarasa miretsiarekin zerikusi handia duen kosmopolitismo paristarra, orbita sinbolista enigmatikoaren baitan. Erakusketak Bilboko artisten munduan ezagutarazteko aukera eman zion, baita gorazarrezko kritikaren bat jasotzeko ere:

*«…Fernandok hogei urte bete berri ditu, hala ere, dagoeneko kolorearen marra trazatzen, formak idealizatzen, argiak nabarmentzen magoa dela erakusten digu; halaber, apaingarritasunaren, dotorezien mukuruko estetikaren, fintasunen magoa da… Artista gazte horren kasuan, instintuak praktika ordezten du, eta gustuak prestakuntza.»* [6]

1917an eta 1918an, jarraitu zuen bere jarduera artistikoarekin eta erakusketekin, bai Bilbon, bai Madrilen, non bizi izan zen denbora batez, 1918. urtean. Bertan, San Fernando Akademian ibili zen ikasle ez-ofizial beza-la, eta maiz bisitatzen zuen Prado Museoa, batez ere El Greco eta Goya margolarien lana ikusteko. Garai hartan ere, bere obra ezaguna izaten hasi zen, martxoaren amaieran bere margolanak Madrilgo Lacoste aretoan erakutsi zituelako, eta prentsaren arreta erakarri zuelako. Banakako

[5] EGUILUZ, Blanca de, *El pintor Fernando García Alegría (1895-1952)*, Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbo, 2007, 35. or.

[6] MARTÍN DE RETANA, José María (ediziogilea), *Pintores y escultores vascos de ayer, hoy y mañana.* La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976, XII. liburukia, 123. faszikulua, 59. or.

*Mujer de la noche*, obra actualmente conocida como *Pensativa* [8]. Tuvo que suponer un importante impulso para un artista tan joven y prácticamente desconocido en el panorama local y nacional, las reacciones tan positivas que generaron sus pinturas. La Esfera, en concreto, vuelve a reproducirle, esta vez en color, dos obras con sus enigmáticas figuras femeninas, *La noche y Pensativa*. Ambas, son portada interior de la revista en sucesivos números del mes de setiembre [9]. *Pensativa,* adquirida por este museo en 2009, es una obra de juventud, la época más interesante de este pintor, en la que habita dentro de la poética simbolista. En esos años, Fernando centra su interés en el mundo femenino, creando toda una serie de mujeres modernas y misteriosas, pobladoras de los ambientes nocturnos más cosmopolitas. Esta etapa, que se prolongará hasta mediados de los años 20, sitúa a Fernando como un autor de estilo particular, y una obra diferenciada de la que entonces se estaba realizando en el País Vasco, con la excepción quizás de Gustavo de Maeztu. Ambos llegan a pintar por esos años a la famosa artista Tórtola Valencia [10]; en la versión de Maeztu, como una monumental mujer ataviada con mantón como puede apreciarse en el lienzo *Bailarina*, fechable hacia 1914, obra así mismo perteneciente a la colección del Museo de Bellas Artes de Álava.

Dos importantes exposiciones se sucederán en 1919. En mayo acude a la *Exposición Hispano-Francesa de Zaragoza*, celebrada en la Lonja de la capital aragonesa. Allí se pudieron contemplar obras de Marquet, Bonard, Vlamick, Picasso, Nonell, Gargallo y Julio Antonio. Por la Asociación de Artistas Vascos acudieron Alberto y José Arrue, Arteta, Cabanas Oteiza,

8 LAGO, Silvio: El pintor «Fernando» en La Esfera nº 226, 27-IV-1918.
La Esfera marcó una época como revista gráfica de información general y fue la mejor de su tiempo. En ella colaboraron los mejores ilustradores del primer tercio del siglo XX y fue al mismo tiempo un álbum de piezas literarias firmadas por periodistas y escritores de prestigio.

9 «La noche. Cuadro de Fernando García» en La Esfera nº 246, 14-IX-1918
«Pensativa. Cuadro de Fernando García» en La Esfera nº 247, 21-IX-1918.

10 GARCÍA GARCÍA, Isabel, *Orígenes de las vanguardias artísticas en Madrid (1909-1922)*[Tesis doctoral], Universidad Complutense, Madrid, 2002, p. 265.






*Pentsakorra*. *Pensativa.*
*La Esfera*, 1918-IX-21



Gustavo de Maeztu (1887-1947)
*Emakume dantzaria*. *Bailarina*
Hacia 1914 aldera
Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

erakusketa hori –hiriburuan izan zuen aurkezpena– dela eta, bere lanari buruzko erreseinak agertu ziren hainbat egunkaritan; horietako bat Antonio de Hoyos y Vinent-ek, Madrilgo aristokrata, dandy eta idazleak, dekadentismo higikunde estetikoaren jarraitzaileak, sinatu zuen, Fernandoren koadroei buruzko oso balorazio positiboa eginda [7]. Gainera, La Esfera astekari ilustratuak, herrialdeko prestigio handienetako batek, orrialde oso bat eskaini zion, erakusketan aurkeztutako artelan batzuen irudiak jarrita, besteak beste, *Haizemailea, Ama*, *Tea* eta *Gaueko emakumea*, gaur egun *Pentsakorra* [8] izenez ezaguna. Bere margolanek jaso zituzten iritzi positibo horiek bultzada handia izan behar ziren tokiko mailan eta estatu mailan ia-ia ezezaguna zen artista

7 «Noticias y sucesos», *ABC*-n, 1918-III-16, 16. or.; HOYOS Y VINENT, Antonio: «Fernando», *El Día*-n. *Diario de la noche*, 1918-III-23.

8 LAGO, Silvio: El pintor «Fernando» La Esfera-ren 226. zenbakian, 1918-IV-27.
La Esferak aro bat markatu zuen, informazio orokorreko aldizkari grafikoa –bere garaian onena– izanik. XX. mendearen lehenengo hereneko irudigile onenek kolaboratu zuten, eta, aldi berean, prestigiozko kazetariek eta idazleek sinatutako pieza literarioen albuma zen.




1919an Bilbon egin zen nazioarteko erakustaldiaren katalogoa.
Catálogo de la muestra internacional celebrada en Bilbao en 1919.

Fernando, Anselmo e Isidoro de Guinea, Guezala, Iturrino, Valentín de Zubiaurre, Uranga y Zuloaga entre otros [11].

La segunda fue la *I Exposición Internacional de Pintura y Escultura de Bilbao*, quizá el acontecimiento artístico más importante celebrado en el País Vasco en el momento. La iniciativa tenía una clara vocación internacional y «*tendrá una notable influencia en la nueva generación de artistas locales que despuntó en los años veinte*.» [12] Fernando presentará aquí una única obra, *Gitanas*, pero el hecho de haber sido seleccionado es claramente indicativo de la importancia que el artista estaba obteniendo.

Mantiene un ritmo expositivo anual; con el pintor Benito Barrueta en el salón de la Asociación de Artistas Vascos (1920), en la *Exposición de la Asociación de Artistas Vascos en el Centro Mercantil de Zaragoza* (1921)*,* de la que saldrá constituida la Asociación de Artistas Aragoneses, deseosos de seguir el ejemplo de los artistas vascos [13] y en la Exposición Nacional de Bellas Artes de Madrid (1922). Al año siguiente, ya con 28 años y un am-

11 MUR PASTOR, Pilar, *La Asociación de Artistas Vascos*, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 1985, p. 68.

12 MANTEROLA, Ismael; Mikel ONANDIA, «Introducción. Bilbao 1919. La Exposición Internacional de Pintura y Escultura» en *Boletín* nº 11, Museo de Bellas Artes de Bilbao, Bilbao, 2019, p. 5.

13 MUR PASTOR, Pilar, op. cit., p. 89.





Ignacio Zuloaga, Hermen Anglada Camarasa, Fernando eta beste artista batzuk Artxandako Kasinoaren (Bilbo) sarreran 1919an.
Ignacio Zuloaga, Hermen Anglada Camarasa, Fernando y otros artistas en la entrada del Casino de Artxanda (Bilbao) en 1919.

gaztearentzat. Hain zuzen ere, La Esfera-k berriz argitaratu zituen, oraingo honetan koloretan, emakumezko figura enigmatikoak irudikatzen dituzten bi artelan: *Gaua* eta *Pentsakorra*. Biak aldizkariaren barruko azalean agertu ziren, irraileko zenbaki jarraituetan [9]. *Pentsakorra,* museo honek 2009an erositakoa, pintore horren aldi interesgarriena den gaztaroko obra da; izan ere, aldi horretan poetika sinbolistan murgilduta zegoen. Urte horietan, Fernandok emakumeen munduan jarri zuen arreta, eta gau giro kosmopolitenetan bizi diren emakume moderno eta misteriotsuen serie oso bat sortu zuen. Etapa hori 20. hamarkadaren erdialdera luzatu zen; denbora horretan, estilo berezia zuen egile, garai hartan Euskal Herrian egiten zenetik –beharbada, Gustavo de Maeztu kenduta– bereizten zen obraren egile bihurtu zen Fernando. Urte horietan, biek Tórtola Valencia [10] artista ospetsua margotu zuten; Maezturen bertsioan, emakume monumental

9 «La noche. Cuadro de Fernando García», La Esfera-ren 246. zenbakian, 1918-IX-14 «Pensativa. Cuadro de Fernando García», La Esfera-ren 247. zenbakian, 1918-IX-21.

10 GARCÍA GARCÍA, Isabel, *Orígenes de las vanguardias artísticas en Madrid (1909-1922)* [Doktorego tesia], Unibertsitate Konplutentsea, Madril, 2002, 265 or.

plio bagaje productivo y expositivo, decide viajar a París, donde va a residir durante un tiempo con su amigo, el también pintor Jenaro Urrutia y el escritor Julio Aramburu. No tenemos constancia de que acudiera a alguna academia pero sí que frecuentaba el estudio del escultor Paco Durrio [14], auténtico aglutinador de la colonia vasca en París. Crisanto Lasterra refleja gráficamente la vida de este grupo en París: *«Por otra parte yo había ido a caer en un grupo de artistas, escritores y estudiantes, algunos de ellos bilbaínos o medio bilbaínos, que habitaban en los modestos hoteles de las callejas de Montmarte y que se habían incorporado a la vida del viejo quartier. Andaban entonces por allí, el pintor ondarrotarra Jose Benito Bicandi, los bilbaínos Jenaro Urrutia y Fernando García, el navarro Fernando Aramburu, el vitoriano Odón Apraiz… Muchos de ellos se movían más o menos directamente en la esfera de relaciones de Durrio y hablaban de él con especial afecto.»* [15]

Ello le permitirá conocer y tratar a distintos artistas como Juan de Echevarría, Ignacio Zuloaga, Ascensio Martiarena, Francisco Iturrino y otros más [16]. En París también conoce, a través de su amigo Jenaro Urrutia, a la que años más tarde será su mujer, Irene Manzaneque Flores, empleada en un taller de alta costura.

Tras su regreso en 1924, expone en Bilbao las obras pintadas durante su estancia en Francia, la mayor parte de ellas paisajes urbanos, distintos

**14** «Paco Durrio (Valladolid, 1868-París, 1940) es quizá el más paradigmático de los artistas vascos en el cambio del siglo XIX al XX. Instalado en París con 21 años pronto encontró un activo puesto en el círculo artístico parisino, estableciendo numerosas relaciones con algunos de los más importantes movimientos renovadores y de vanguardia como Émile Bernard, Maurice Denis y Paul Gauguin, con quien compartía incluso taller, sirviendo a su vez de intermediario para otros compatriotas, principalmente catalanes y vascos. Su obra, aunque no muy numerosa atraería la atención de artistas, marchantes y críticos y fue elogiada por escritores cercanos al simbolismo como Stéphane Mallarmé, Guillaume Apollinaire y Charles Morice» en SOTO CANO, María, «La escultura modernista en Bilbao: Paco Durrio y Nemesio Mogrobejo». http://www.artnouveau.eu/admin_ponencies/functions/upload/uploads/Maria_Soto_Paper.pdf [consulta 09/02/2020].

**15** LASTERRA, Crisanto, *En París con Paco Durrio seguido de Darío de Regoyos, poesía del color y de la luz*, Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbao, 1952, pp. 27-28.

**16** GARCÍA, María Nieves, op. cit., p. 12.



gisa, mantoiarekin apainduta, gutxi gorabehera 1914koa den *Emakume dantzaria* mihisean ikus daitekeenez (obra hori Arabako Arte Ederren Museoko bildumakoa da).

1919an, bi erakusketa garrantzitsu izan zituen, bata bestearen ondoan. Maiatzean, Aragoiko hiriburuko Lonjan antolatu zen *Zaragozako Erakusketa Hispano-frantsesera* joan zen. Marquet, Bonard, Vlamick, Picasso, Nonell, Gargallo eta Julio Antonio bezalako artisten lanak ikusteko aukera zen. Euskal Artisten Elkarteko ordezkari moduan, Alberto eta José Arrue, Arteta, Cabanas Oteiza, Fernando, Anselmo eta Isidoro de Guinea, Guezala, Iturrino, Valentín de Zubiaurre, Uranga eta Zuloaga joan ziren, besteak beste [11].

Bigarrena *Bilboko Pintura eta Eskultura Nazioarteko I. Erakusketa* zen, beharbada, Euskal Herrian garai hartan ospatutako topaketa artistiko garrantzitsuena. Ekimenak nazioarteko bokazio argia zuen, eta *«eragin nabarmena izango du hogeigarren hamarkadan hasi ziren tokiko artisten belaunaldi berrian.»* [12] Fernandok margolan bakarra aurkeztu zuen erakusketan: *Emakume ijitoak*, baina, hautatu zutenez, argi eta garbi erakusten du artista hartzen ari zen garrantzia.

Urtero erakusketa bat egiten jarraitu zuen; Benito Barrueta pintorearekin, Euskal Artisten Elkarteko aretoan (1920), *Euskal Artisten Elkartearen Erakusketan, Zaragozako Merkataritza Zentroan* (1921), non euskal artisten ereduari jarraitzeko gogo bizia erakutsi zuten Aragoiko artistek Aragoiko Artisten Elkartea eratu zuten [13], eta Madrilgo Arte Ederren Erakusketa Nazionalean (1922). Hurrengo urtean, dagoeneko 28 urterekin eta egindako artelanen eta erakusketen esperientzia zabalarekin, Parisera joatea

**11** MUR PASTOR, Pilar, *La Asociación de Artistas Vascos*, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1985, 68. or.

**12** MANTEROLA, Ismael; Mikel ONANDIA, «Introducción. Bilbao 1919. La Exposición Internacional de Pintura y Escultura», *Boletín*-en 11. zenbakian, Bilboko Arte Ederren Museoa, Bilbo, 2019, 5 or.

**13** MUR PASTOR, Pilar, op. cit., 89. or.




*Artista Iberiarren Elkartearen lehen erakusketa*. Madril. 1925.
*Primera Exposición de la Sociedad de Artistas Ibéricos*. Madrid. 1925.

rincones de la capital francesa. Celebra así mismo su segunda exposición individual en la Sala Lacoste de Madrid, lo que le vale una crítica favorable de José Francés en la revista La Esfera:

*«…Tiene por tanto su pintura un cromatismo agradable, una feminidad encantadora y sobre todo un positivo buen gusto. En el salón Lacoste se ha celebrado durante los últimos días del mes de marzo una exposición muy interesante. Una de esas exposiciones – tan frecuentes en el momento auroral de las artes españolas – donde se ofrece un poco impaciente, un poco indeciso todavía, pero ya garantizado de porvenir, el temperamento de un artista inédito.»* [17]

Participa en 1925 en la *Exposición de la Sociedad de Artistas Ibéricos*, uno de los hitos más importantes y renovadores en la España del momento para el arte de vanguardia [18]. Fernando presenta tres obras: *Puente de hierro*, *La ventana* y *Naturaleza muerta*. Sus títulos son ya indicativos del cambio que se estaba produciendo en su pintura; solo un año antes había firmado su paradigmática *La dama del abanico,* presentada a la Exposición Nacional de 1924 y con la que de alguna manera ponía el broche final a esa etapa dominada por la representación modernista y simbolista de la

17 MARTÍN DE RETANA, José María (editor), op. cit., pp. 82-83.

18 En 1924 nace la Sociedad de Artistas Ibéricos con el propósito de renovar tanto el arte como la relación con el público, que para ellos debía estar informado. La Exposición de 1925 constituye la presentación pública de esta Sociedad que buscaba incorporar el arte español a las vanguardias. Vid. https://www.museoreinasofia.es/exposiciones/sociedad-artistas-ibericos-arte-espanol-1925 [consulta 15/12/2019].



erabaki zuen; bertan, denbora batez, bere laguna zen Jenaro Urrutia pintorearekin eta Julio Aramburu idazlearekin bizi zen. Ez dugu daturik akademia batean ibili zen ala ez jakiteko, baina jakin badakigu Parisen bizi zen euskal jendea biltzen zuen Paco Durrio [14] eskultorearen estudiora joaten zela. Crisanto Lasterrak modu grafikoan adierazi du talde horren Pariseko bizimodua: *«Montmartreko kale estuetako hotel xumeetan bizi ziren eta quartier zaharreko bizimoduarekin bat egin zuten artista, idazle eta ikasleen –bilbotar edo erdi-bilbotarren– talde batekin bat egiteko asmoz joan nintzen. Orduan, Jose Benito Bicandi pintore ondarrotarra, Jenaro Urrutia eta Fernando García bilbotarrak, Fernando Aramburu nafartarra, Odón Apraiz gasteiztarra ibiltzen ziren hortik  Horietako asko Durrioren harreman eremuan mugitzen ziren gutxi gorabehera, eta afektu bereziarekin hitz egiten zuten berari buruz.»* [15]

Horri esker, hainbat artista ezagutu zituen: Juan de Echevarría, Ignacio Zuloaga, Ascensio Martiarena, Francisco Iturrino eta beste batzuk [16]. Parisen ere, bere laguna zen Jenaro Urrutiaren bitartez, urte batzuen buruan emaztetzat hartu zuen Irene Manzaneque Flores, goi mailako jantzigintzako lantegi bateko enplegatua.

1924an Bilbora itzulita, Frantzian margotutako artelanen erakusketa egin zuen; gehienek Frantziako hiriburuko hiri paisaiak eta bazter desberdinak

14 «Paco Durrio (Valladolid, 1868-Paris, 1940), beharbada, paradigmatikoena da XIX. eta XX. mende bitarteko euskal artisten artean. 21 urterekin Parisen kokatu zenean, laster aurkitu zuen toki aktiboa Pariseko artisten artean; harreman ugari egin zituen mugimendu berritzaile batzuetako eta abangoardiako jarraitzaileekin, hala nola Émile Bernard, Maurice Denis eta Paul Gauguinekin. Azken horrek eta Durriok lantegi bera zuten, gainera, eta bitartekari aritu ziren beste herrikideentzat, batez ere, Kataluniatik eta Euskal Herritik etorritakoentzat. Bere lanak, oso ugaria ez izan arren, artista, arte-merkatari eta kritikarien arreta erakarri zuen; gainera, sinbolismotik hurbileko idazleek goraipatu zuten, hala nola Stéphane Mallarmé, Guillaume Apollinaire eta Charles Morice-k» (SOTO CANO, María, «La escultura modernista en Bilbao: Paco Durrio y Nemesio Mogrobejo». http://www.artnouveau.eu/admin_ponencies/functions/upload/uploads/Maria_Soto_Paper.pdf [2020-02-09an ikusita].

15 LASTERRA, Crisanto, *En París con Paco Durrio seguido de Darío de Regoyos, poesía del color y de la luz*, Bizkaiko Kultura Batzordea, Bilbo, 1952, 27-28 orr.

16 GARCÍA, María Nieves, op. cit., 12. or.




Fernandoren bakarkako erakustaldia Parisko Zentro Espainiarrean. 1926
Exposición individual de Fernando en el Centro Español de París. 1926

mujer. Abandona, aunque no del todo, ese mundo cosmopolita y comienzan a tomar más peso en su pintura otros géneros como el bodegón y muy especialmente el paisaje.

En marzo de 1926 tiene lugar su primera muestra individual en París en la Casa de España y ese mismo año contrae matrimonio con Irene Manzaneque. De este matrimonio nacerá en 1928 su hija Nieves. Esta última narrará años más tarde la equivocación de su padre al abandonar la capital francesa: *«Pienso que la carta definitiva de la vida de artista de Fernando se jugó en aquel momento. En lugar de haberse casado y permanecido en el único lugar del mundo que levanta a los pintores de talento hasta alturas insospechadas, quiso volver a su Bilbao natal "porque mi padre está ya muy mayor y me necesita" y porque la vida de familia sería más factible en nuestro rutinario bocho.»* [19]

Concurre además a la *Primera Exposición de Artistas Vascongados* en el recién inaugurado Museo de Arte Moderno de Bilbao. La muestra respondía al criterio fundacional del Museo en orden a la formación de una completa colección de obras modernas de todas las tendencias y a la promoción y estímulo de todos los artistas del país [20]. Fernando presentó dos obras, *Desnudo* y *Plaza du Tertre (Montmartre),* aunque finalmente no estuvieron

**19** GARCÍA, Maria Nieves, op. cit. p. 12.

**20** MUR PASTOR, Pilar, op. cit., p. 133.



irudikatzen zituzten. Halaber, bere bigarren bakarkako erakusketa ospatu zuen, Madrilgo Lacoste aretoan, La Esfera José Francésen kritika ona ekarri ziona:

*«…Beraz, bere pinturak kromatismo atsegina du, feminitate xarmagarria eta, batez ere, gustu on positiboa. Lacoste aretoan, martxoaren azken egunetan, oso erakusketa interesgarria egin zen. Horietako batean –Espainiako arteen une gorenean maizkoan– apur bat pairugabe, apur bat zalantzati oraindik azaldu da, baina etorkizunean artista berri baten tenperamentua izango duela erakutsi du jada.»* [17]

1925ean, *Artista Iberiarren Elkartearen Erakusketan* hartu zuen parte, orduko Espainian, gertakari garrantzitsuen eta berritzaileenetako bat, abangoardia arteari dagokionez [18]. Fernandok hiru obra aurkeztu zituen: *Burdinezko zubia*, *Lehioa* eta *Natura hila*. Izenburuek dagoeneko adierazten dute bere pinturan gertatzen ari zen aldaketa. Izan ere, urtebete lehenago sinatu zuen bere *Abanikodun dama* paradigmatikoa, 1924ko Erakusketa Nazionalean aurkeztu zena, zeinekin nolabait amaiera ematen zion emakumearen irudikapen modernista eta sinbolista nagusi zuen etapa horri. Utzi egin zuen, erabat ez bada ere, mundu kosmopolita hori, eta beste genero batzuk gero eta gehiagotan agertzen hasi ziren bere margolaritzan, hala nola natura hila eta, batik bat, paisaia.

1926ko martxoan, banakako erakusketa –Parisen lehenengoa– izan zuen, Espainiako Etxean, eta urte berean Irene Manzanequerekin ezkondu zen. 1928an, Nieves alaba jaio zitzaien. Azken horrek urteak geroago kontatu zuen aitaren akatsa –Frantziako hiriburua uzteko erabaki okerra–: *«Nire ustez, Fernando artistaren bizitzako karta erabakigarria une hartan jokatu zen.*

**17** MARTÍN DE RETANA, José María (editorea), op. cit., 82-83. orr.

**18** 1924an, Artista Iberiarren Elkartea sortu zen, artea zein publikoarekiko harremana berritzeko asmoz, horretarako informatuta egon behar zuelako. 1925eko Erakusketa elkartearen aurkezpen publikoa da, Espainiako artea abangoardietan sartzeko bidea bilatzen zuelako. Ikus https://www.museoreinasofia.es/exposiciones/sociedad-artistas-ibericos-arte-espanol-1925 [2019-12-15ean ikusita].



Fernando Parisko Zentro Espainiarrean egin zuen inaugurazioan. 1926.
Fernando en su inauguración del Centro Español de París. 1926.

entre las seleccionadas para su adquisición por el centro.

Son años de trabajo constante y de una importante producción; expone individualmente en los salones de la Asociación de Artistas Vascos de Bilbao y en los Salones de «El Heraldo» de Madrid. Aquí recibe una crítica muy elogiosa: «*Porque este pintor es, ante todo, un dibujante, un maestro de la línea, como se aprecia en los desnudos femeninos. Fernando es ante todo un buen dibujante. Creemos que es uno de los artistas que se impondrán y no dudamos que en sucesivas exposiciones tendremos que confirmar el buen juicio que nos ha merecido su obra.*» [21] Participa en importantes colectivas como la Gran Semana Vasca de San Sebastián (1928), la Segunda Exposición de Artistas Vascongados de Bilbao (1932) o en la de las Galerías Emporium de Barcelona (1933). En esta última expusieron conjuntamente artistas de renombre junto con jóvenes promesas como Narciso Balenciaga, Nicolás Martínez Ortiz o Menchu Gal.

**21** «Una exposición de Fernando García» en *Royal, Revista del Gran Mundo*, Madrid, noviembre 1930.



*Ezkondu, eta pintore talentudunak ezin susmatuzko altueretara altxatzen dituen munduko toki bakarrean geratu beharrean, bere jaioterria zen Bilbora itzuli nahi izan zuen, "aita zahartu egin baita, eta behar bainau" eta familia-bizitza gure beti bezalako Botxon errazago egin daitekeelako. »* [19]

Gainera, garai hartan, *Hiru Probintzietako Artisten Lehenengo Erakusketa* antolatu zen, Bilboko Arte Modernoko Museo ireki berrian. Erakusgaiak museoa sortzeko irizpidea betetzen zuen: joera guztietako obra modernoen bilduma osatzea eta herrialdeko artista guztiak sustatu eta pizgarria ematea [20]. Fernandok bi margolan aurkeztu zituen, *Biluzia* eta *Plaza du Tertre (Montmartre)*, nahiz eta azkenean zentroak beste batzuk hautatu zituen erosteko.

Lan etengabeko urteak izan ziren, eta hainbat artelan ekarri zituzten; Fernandok banakako erakusketak izan zituen Bilboko Euskal Artisten Elkarteko aretoetan eta Madrilgo «El Heraldo» aretoan. Hor, kritikariek goraipatu zuten: «*Pintore hau, batez ere, marrazkilaria da, marraren maisua, emakumezkoen biluzietan ikus daitekeenez. Fernando marrazkilari ona da batez ere. Errespetaraziko duen artista bat dela uste dugu, eta ez dugu zalantzarik hurrengo erakusketetan berretsi beharko dugula bere obrari buruz eman dugun iritzi ona.*» [21] Erakusketa kolektibo garrantzitsuetan parte hartu zuen, hala nola Donostiako Euskal Aste Nagusian (1928), Bilboko Hiru Probintzietako Artisten Bigarren Erakusketan (1932) eta Bartzelonako Emporium galerietan (1933). Azken horretan, artista ospetsuek etorkizun handiko gazteekin batera aurkeztu zituzten lanak, hala nola Narciso Balenciagak, Nicolás Martínez Ortizek eta Menchu Galek.

1934an, familiarekin batera Madrilera joatea erabaki zuen, bai berarentzat, baita emaztearentzat ere, aukera profesional berriak topatzeko

**19** GARCÍA, Maria Nieves, op. cit. 12. or.

**20** MUR PASTOR, Pilar, op. cit., 133. or.

**21** «Una exposición de Fernando García», *Royal, Revista del Gran Mundo*, Madril, 1930ko azaroa.

En 1934 decide instalarse con su familia en Madrid en busca de nuevos horizontes profesionales tanto para el como para su mujer. Sin embargo, el estallido de la Guerra Civil en 1936 frustra lógicamente sus planes. Es un periodo difícil, de muchas penurias, donde la siempre frágil salud del artista se resiente todavía más. No obstante, a pesar de los problemas, Fernando continúa pintando: retratos, bodegones y colaboraciones en prensa, concretamente en ABC que publica varias portadas firmadas por él [22]. Así lo refleja su hija Nieves: *«Como dije, el pintor tampoco dejaba de pintar [en la guerra]. Aunque nunca fue especialmente retratista, tal vez porque no le gustaba, pintó los retratos de don Faustino, el desinteresado y buen médico que tenía un pequeño dispensario en los bajos del inmueble y de sus hijos que se encontraban en el lejano Aragón (separados por la guerra) por medio de una fotografía. Pintó también mi primer retrato.»* [23]

No podemos dejar de mencionar que durante esta época, desarrolló también la faceta de anticuario, como una forma de salir adelante: *«…compraba cuadros [en Madrid], los mandaba para Bilbao donde mis tías los vendían en el anexo de las Antigüedades, probablemente a los mismos clientes de la Joyería.»* [24] Es más, este dato nos da una idea de la fuerza de la vocación del artista: *«Mi padre lo que estaba realmente dolido era de no sacar una puñetera peseta de su faceta de anticuario. Pintar seguiría pintando toda la vida, vendiera o no vendiera. El arte por el arte o la respiración del alma que vienen a ser lo mismo.»* [25]

Participa en la exposición del Pabellón Español de París de 1937, excepcional muestra de cuadros y esculturas, que aunó la obra de los más importantes autores del momento y de las figuras emergentes más relevantes

**22** MARTÍN DE RETANA, José María (editor), op. cit., p. 59.

**23** GARCÍA, María Nieves, op. cit., p. 53.

**24** GARCÍA, María Nieves, op. cit., p. 35. En otro párrafo de la misma obra (p. 18) afirma así: *«El Fernando pintor debía completarse con el Fernando anticuario que compraba alguna cosita aquí y allá para mandarlas a Bilbao, donde sus hermanas las trasvasaban a la colección o al capricho de los buenos y entonces sibaríticos aficionados bilbaínos»*

**25** GARCÍA, Maria Nieves, op. cit. p. 42.



amoz. Hala ere, 1936an hasitako Gerra Zibilak, logikoa denez, zapuztu zituen bere planak. Aldi latza izan zen; eskasia asko bizi zituzten, eta artistaren osasunak –beti ahulak– okerrera jo zuen. Hala ere, arazoak arazo, Fernandok jarraitu zuen margotzen: erretratuak, natura hilak…, prentsarekin kolaboratzen zuen, hain zuzen, Fernandok sinatutako hainbat azal argitaratu zituen ABC egunkariarekin [22]. Nieves alabak honela deskribatu zuen: *«Esan bezala, pintoreak [gerran ere] ez zuen margotzeari utzi. Inoiz ez zen oso erretratuzalea izan, beharbada, genero hori gustuko ez zuelako, hala ere, etxabeetan kontsultategi txiki bat zeukan don Faustino mediku on eta desinteresatuaren eta, gerra zela eta Aragoin –aitarengandik urrun– zeuden seme-alaben erretratuak margotu zituen, argazki bat erabilita. Nire lehenengo erretratua ere margotu zuen.»* [23]

Ezin dugu aipatu gabe utzi garai hartan antzinakoen merkatari gisa aritzen hasi zela, aurrera ateratzeko beste modu bat izateko: *«…[Madrilen] koadroak erosi, eta Bilbora bidaltzen zituen, non nire izebek saltzen zituzten antigoaleko gauzen eranskinean, seguru asko, bitxi-dendako bezeroei beraiei.»* [24] Are gehiago, datu horrek artistaren bokazioaren indarra erakusten digu: *«Aita benetan minduta zegoen, antzinakoen merkatari gisa pezeta bat ere ateratzen ez zuelako. Margotu, bizitza osoan margotzen jarraituko zuen, koadroak saltzen ez bazituen ere. Artea arteagatik edo arimaren arnasa gauza bera baitira.»* [25]

1937an, Parisko Espainiako Pabiloiko erakusketan parte hartu zuen: koadro eta pinturen ohiz kanpoko erakusgarrian, garaiko egile garrantzitsuenen eta Espainiako artean ibilbidea hasten ari zirenen pertsona nabarmenen lanak bildu zituenean. Euskadiko atalak, pabiloiaren barruan, Ucelay

**22** MARTÍN DE RETANA, José María (editorea), op. cit., 59. or.

**23** GARCÍA, María Nieves, op. cit., 53. or.

**24** GARCÍA, María Nieves, op. cit., 35. or. Obra bereko beste apartatu batean (18. or.) hauxe dio: *«Fernando pintorea osatu behar zen Fernando antzinakoen merkatariarekin, zeinek gauzaren bat han-hemenka erosten zuen eta Bilbora bidaltzen zuen, non bere arrebek bilduman sartu edo Bilboko zale sibaritiko onei pasatzen zizkieten.»*

**25** GARCÍA, Maria Nieves, op. cit., 42. or.

del arte español. La sección de Euskadi, dentro del pabellón, comisariada por Ucelay, mostraba un panorama completo del arte vasco del primer tercio del siglo y, una vez finalizada la Exposición itineró por otras ciudades europeas. [26]

Terminada la guerra, se instala nuevamente en Bilbao hacia 1940. Aquí retoma la amistad con sus antiguos compañeros Jenaro Urrutia y Félix Arteta y acompañado por ellos vuelve a la pintura de paisaje, sobre todo de la costa vasca. Continúa mostrando su obra en distintas exposiciones como la de la Sala Arte de Bilbao (1942) o la de la Casa Alonso de la misma ciudad (1944) por la que también recibe críticas elogiosas: *«En el salón Alonso podemos contemplar los lienzos debidos al pintor Fernando impregnados de esta suerte de romanticismo. Paisajes, flores, figuras en los que campea la formación romántica de Fernando. Algún retrato… son muestra de la corrección del dibujo de este artista pintados con simpatía y buen conocimiento de la técnica.»* [27] En esta última expone, fuera de venta, el retrato de su hija Nieves con el título de *Retrato de niña*, pintado en esas fechas.

No es la primera vez que retrata a su hija, conocemos otros ejemplos, de busto y menor formato. En esta ocasión, sin embargo, combina dos géneros, el retrato y el paisaje. Su hija es ya una adolescente de 15 años a la que representa de tres cuartos y mirando fijamente al espectador. Lleva un vestido blanco con volantes y en la cintura, un lazo azul a juego con los lazos del pelo y el del sombrero que sujeta en una de sus manos, y que combina con el color de sus ojos. Es un retrato al aire libre, en un jardín o bosque, donde destaca el cielo brumoso y entonado, una vez más, en azules. Tenemos la descripción que del mismo hace la retratada: *«Por entonces papa había hecho de mi deslavazada persona el segundo retrato al óleo…."armo-*

**26** *Pabellón Español 1937. Exposición Internacional de París*, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Madrid, 1987, p. 160-163.

**27** BESORA, Enrique, «Fernando en el salón Alonso» Emisión de Radio Bilbao del 8 de febrero de 1944. Archivo Documental Biblioteca del Museo de Bellas Artes de Bilbao.





*Nieves Garciaren erretratua, margolariaren alaba.*1943
*Retrato de Nieves García, hija del pintor.* 1943.
Arabako Arte Ederren Museoa.
Museo de Bellas Artes de Álava.

*nizándolo" a la inglesa aunque el vestido de horganza [sic] y la pamela no fueron fantasía sino como yo vestía en realidad los domingos de verano, pues mi madre alargó mi infancia todo lo que pudo. Pero lo realmente extraordinario del retrato no es que fuera bueno y uno de los mejores que mi padre pintara – creo haber dicho que el retratismo no era su fuerte – sino por algo que pintores y críticos no podían saber… el retrato era premonitorio.»* [28] Afirma que su padre supo adivinar o intuir la mujer en que se iba a convertir ya que en aquel momento era una joven traviesa y rebelde.

Su familia más cercana es motivo de inspiración, como se aprecia así mismo en el retrato de su esposa, Irene Manzaneque. Este presenta una factura más clásica. Irene aparece sentada, con una mano apoyada en el brazo de la butaca, mientras que con la otra sujeta unos guantes blancos. Viste traje oscuro, con algún destello de color como el broche del cuello o la flor rosa que adorna el traje. Es un retrato de interior, donde la retratada fija la mirada fuera de la visión del espectador. Es una obra de factura clásica, pero que destaca por el uso del color, empleado de forma muy expresiva.

Estas dos obras proceden del entorno familiar del artista ya que fueron custodiadas por su hija hasta su reciente fallecimiento. El retrato no fue un género muy tratado por el pintor en su trayectoria, pero estos dos que ahora presentamos, están pintados desde la intimidad y de la cercanía y resumen su concepto colorista de la pintura y de la línea ondulante, así como de una cierta idealización de las formas, siempre armónicas.

A pesar de sus problemas de salud, continúa mostrando su obra en distintas exposiciones: Sala Albia de Bilbao (1946), sala Marabini de Madrid (1949) y en las Salas Aranaz Darras de San Sebastián (1950), con un importante éxito de público y crítica. En una de las entrevistas que le realizan en la capital guipuzcoana critica a la burguesía, causante según él de que no se vendiesen más cuadros y afirma que el mayor logro de su pintura era haber llamado la atención en París [29]. En 1952, en enero,

**28** GARCÍA, Maria Nieves, op. cit., p. 92.

**29** GARCÍA, María Nieves, op. cit. p. 120.



komisarioa zuenak, mendearen lehenengo hereneko euskal artearen panorama osoa erakusten zuen, eta, erakusketa amaituta, Europako hiriburuetan zehar ibili zen [26].

Gerra amaituta, berriz ere Bilbora itzuli zen bizitzera, 1940. urte aldera. Jenaro Urrutia eta Félix Arteta antzinako lagunekiko harremana berreskuratu zuen, eta haiekin batera, berriz hasi zen paisaiak margotzen, batez ere, Euskal Herriko kostaldea. Bere margolana erakusten jarraitu zuen, besteak beste, Bilboko Arte Aretoan (1942) eta Alonso Etxean, Bilbon ere (1944); erakusketa horrek kritika onak ekarri zizkion: *«Alonso Etxean, Fernando pintorearen koadroak ikus ditzakegu, nolabaiteko erromantizismo horren eragina dutenak.Paisaiak, loreak, figurak, horietan guztietan nabaritzen da Fernandoren prestakuntza erromantikoa. Erretraturen bat… artistak marrazteko duen gaitasunaren seinale dira, sinpatiarekin eta teknikaren ezagutza onarekin margotuak.»* [27] Azken erakusketa horretan, saltzeko asmorik gabe, bere alaba Nievesen erretratua ere aurkeztu zuen, honako izenburu honekin: *Neskaren erretratua*; aldi horretan margotuta.

Ez zen alabaren lehenengo erretratua, beste adibide batzuk ezagutzen ditugu, bustoa irudikatzen dutenak eta tamaina txikiagokoak. Kasu horretan, hala ere, bi genero konbinatu zituen: erretratua eta paisaia. Alaba nerabea da dagoeneko, 15 urte ditu; hiru laurdeneko planoan irudikatzen du, ikusleari adi-adi begiraturik. Parpailadun soineko zuria du, eta begizta urdina gerrian, ilean eta kapelan dauzkan begiztekin ondo ematen duena; eskuetako batean daraman kapela ongi doa bere begietako kolorearekin. Aire zabalean egindako erretratua da, lorategi eta baso batean, non zeru lainotsuaren tonu urdinak –berriz ere– nabarmentzen diren. Badaukagu erretratutakoak berak egindako deskribapena: *«Garai*

**26** *Espainiako Pabiloia 1937. Parisko Nazioarteko Erakusketa*, Sofia Erregina Museo Nazionaleko Zentroa, Madril, 1987, 160-163. orr.

**27** BESORA, Enrique, «Fernando en el salón Alonso», Bilbao irratiko emisioa, 1944ko otsailaren 8koa. Bilboko Arte Ederren Museoko Liburutegiko Dokumentu Artxiboa.



*Irene Manzaneque Floresen erretratua, margolariaren emaztea.* 1943 aldera.
*Retrato de Irene Manzaneque Flores, mujer del pintor.* Hacia 1943.
Arabako Arte Ederren Museoa.
Museo de Bellas Artes de Álava.



*hartan, aitak nire pertsona gatzgabearen bigarren olio-erretratua egin zuen,… Ingalaterrako erara "bateratua"; "horganza"ko [sic] soinekoa eta pamela ez ziren fantasia, benetan janzten nintzen horrela udako igandeetan, nire amak ahal zuen neurrian luzatu baitzuen nire haurtzaroa. Baina benetan harritzekoa ez zen erretratu ona –aitak egindako onenetako bat– izatea; oker ez banago, aipatu dut jada ez zela erretratuak egiten iaioa; pintoreek eta kritikariek jakin ezin zuten beste gauza harrigarri bat zegoen… erretratu iragarlea zela.»* [28] Nievesen hitzetan, aitak asmatu egin zuen nolako emakume bihurtuko zen, garai hartan gazte bihurri eta menderakaitza zen arren.

Familia hurbilena inspirazio iturria da, Irene Manzaneque emaztearen erretratuan ikus daitekeen moduan. Faktura klasikoago bat irudikatzen du. Irene eserita dago, esku bat besaulkiko besoan, beste eskuan eskularru zuriak dituela. Soineko iluna darama, distira koloretsu batzuk dituena: adibidez, paparreko orratza eta soinekoa apaintzen duen lore arrosa. Barnealdean egindako erretratua da, eta erretratutakoa ikusleak ikusi ezin duen tokira begira dago. Faktura klasikoko obra da, baina kolorea erabiltzeko modu oso adierazkorragatik nabarmentzen da.

Bi obra horiek artistaren familia-ingurunetik datoz, alabak, hil arte (orain dela gutxi), gorde zituelako. Erretratua pintoreak bere ibilbidean gutxitan margotzen zuen generoa da, baina aurkezten ditugun bi horiek intimitatetik eta hurbiletik margotuta daude, eta uztartu egiten dituzte pinturaren eta uhin-marraren kontzeptu kolorista, baita beti harmoniaz irudikatzen diren formen idealizazio bat ere.

Osasun-arazoak gorabehera, jarraitu zuen bere artelana hainbat erakusketatan aurkezten: Bilboko Albia aretoan (1946), Madrilgo Marabini aretoan (1949) eta Donostiako Aranaz Darras aretoetan (1950), arrakasta handia lortuz, publikoaren zein kritikarien artean. Gipuzkoako hiriburuan egin zizkioten elkarrizketetako batean, burgesia kritikatu zuen; bere iritziz, koadro gutxi saltzea burgesen errua zen; gainera, bere pinturaren lorpen

28 GARCÍA, Maria Nieves, op. cit., 92. or.




Bakarkako erakusketa Donostiako Aranaz Darras aretoetan. 1950.
Exposición individual en las salas Aranaz Darras de Donostia-San Sebastián. 1950 .

realiza su última exposición en la Sala Arte de Bilbao y recibe una elogiosa crítica en El Correo Español-El Pueblo Vasco:

*«…Fernando vuelve a presentarse con 21 lienzos de varios motivos que tapizan las paredes del Salón "Arte". Expone de todo: bodegones, flores, paisajes, etc., que muestran en distintos aspectos sus posibilidades plásticas y estéticas… Fernando es un pintor largo, de pincelada suelta y conservando su características de siempre –esto es lo difícil– va mejorándose en su madurez. No abandona lo clásico, pero es moderno. Su pintura está impregnada de aromas parisinos y sus cuadros nos recuerdan aquel romántico salón de Artistas Vascos donde aprendimos en nuestra infancia a ver buena pintura.»* [30]

Al finalizar esta exposición fallece en Bilbao el 26 de enero de 1952. Su obra y su trayectoria han sido reconocidas posteriormente. En mayo de ese mismo año, la Asociación Artística Vizcaína realizó una exposición póstuma de las obras del pintor. En 1964 fue nuevamente esta asociación la que organizó una exposición en sus locales de Gran Vía 20 y Joaquín de Zugazagoitia le dedicó un cariñoso artículo: *«El nombre de Fernando García evoca el Bilbao entre 1920 y 1930. Es mucho que un nombre evoque toda un época, pero además Fernando era uno de esos hombres que crearon en la villa un clima libre y generoso por su independencia e interés.»* [31]

**30** JIMÉNEZ EGUIZABAL, Mario, «Meditación ante los cuadros de Fernando» *en El Correo Español-El Pueblo Vasco*, 13-1-1952.

**31** A. E. : «Fernando: un vasco con proyección universal» en *Galería Antiquaria*, nº 226, Madrid, abril 2004, pp. 50-54, p. 54.



handiena Parisen arreta erakarri izana zen [29]. 1952ko urtarrilean, azken erakusketa egin zuen Bilboko Arte Aretoan eta kritika ona jaso zuen El Correo Español-El Pueblo Vasco egunkarian:

*«…Fernando berriz azaldu zen, Arte Aretoko hormak betetzen dituzten eta askotariko motiboak dituzten 21 mihise aurkezteko. Denetarik erakutsi du: natura hilak, loreak, paisaiak eta abar, bere trebezia plastiko eta estetikoen alde ezberdinak erakusteko…. Fernando ibilbide luzeko pintorea da, pintzelkada arina duena, eta bere betiko ezaugarriari eusten dio –horixe da zailena–: heldutasunean aurrera egin ahala gero eta hobea da. Ez du klasikotasuna baztertzen, baina modernoa da. Bere pinturak Pariseko kutsuen eragina du, eta bere margolanek Euskal Artisten areto erromantiko hori ekartzen digute gogora, non, haurrak ginenean, pintura ona ikusten ikasi genuen.»* [30]

Erakusketa amaituta, hil zen Bilbon, 1952ko urtarrilaren 26an. Bere obraren eta ibilbidearen meritua geroago aitortu zen. Urte bereko maiatzean, Bizkaiko Elkarte Artistikoak hilondoko erakusketa bat antolatu zuen, pintorearen lanak erakusteko. 1964an, elkarte berak Gran Vía kaleko 20. zenbakian dituen bulegoetan erakusketa bat antolatu zuen, eta Joaquín de Zugazagoitiak sentimenduz beteriko artikulu bat idatzi zuen pintoreari buruz: *«Fernando Garciaren izenak 1920 eta 1930 arteko Bilbo ekartzen du gogora. Izen batek garai oso bat gogora ekartzea asko da, baina Fernando, gainera, hirian askatasun eta eskuzabaltasun giroa sortu zuten horietako bat da, independentea zelako eta interesa erakutsi zuelako.»* [31]

Dagoeneko azkenaldian, 1996an, bere obra gogorarazten zuen atzera begirako erakusketa bat egin zen Bilboko BBK aretoetan, artistaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko asmoz egindako katalogo baten edizioarekin batera.

**29** GARCÍA, María Nieves, op. cit., 120. or.

**30** JIMÉNEZ EGUIZABAL, Mario, «Meditación ante los cuadros de Fernando» , *El Correo Español-El Pueblo Vasco*-n, 1952-1-13.

**31** A. E.: «Fernando: un vasco con proyección universal» *Galería Antiquaria*, 226. zk., Madril, 2004ko apirila, 50-54. orr., 54. or.

Ya más recientemente, en 1996 tuvo lugar en los salones de la BBK en Bilbao una exposición retrospectiva sobre su obra con la edición de un catálogo, conmemorando el centenario de su nacimiento.

Fernando es un pintor singular que escapa, en su etapa inicial, de lo que podríamos llamar la Escuela Vasca de pintura sobre todo por los temas y el tratamiento de los mismos. No obstante, durante el transcurso de su trayectoria artística, vuelve a la tradición más clásica especialmente en los motivos (paisajes, bodegones) pero manteniendo siempre una singular atención al uso expresivo del color, algo que perdura en toda su producción. Como afirma Xabier Sáenz de Gorbea*: «…los lugares de formación le influyen en su manera de afrontar el hecho artístico. De América trajo el gusto por el color que le llevó a utilizar tonos más calientes, contrastes muy luminosos y acordes algo chirriantes. Francia le aporta el conocimiento del arte moderno y con ello una actitud innovadora que comparte con otros autores vascos del momento.»* [32]

**32** http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/garcia-alegria-fernando/ar-61221/ [consulta 11-02-2020].



Fernando pintore berezia da, hasierako etapan, «pinturaren euskal eskola» dei diezaiokegunetik ihes egiten duena, batez ere, koadroen gaiak eta horiek jorratzeko modua direla eta. Hala ere, ibilbide artistikoan zehar, tradizio klasikoagora itzuli zen, batez ere motiboei dagokienez (paisaiak, natura hilak), baina beti jartzen zuen arreta berezia kolorearen erabilera adierazkorrean; hori bere lan guztietan antzeman daiteke. Xabier Sáenz de Gorbearen hitzetan*: «…artistak prestakuntza jaso zuen tokiek eragina dute egintza artistikoari aurre egiteko moduan. Amerikatik kolorearekiko gustua ekarri zuen: tonu beroagoak, kontraste oso argitsuak eta akorde apur bat kirrinkariak erabili zituen. Frantziak arte modernoari buruzko ezagutza eman zion, baita jarrera berritzailea ere, euskal egile garaikideekin partekatu zuena.»* [32]

**32** http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/garcia-alegria-fernando/ar-61221/ [2020-02-11n ikusita].

## Obras de Fernando García Alegría en el Museo de Bellas Artes de Álava



***Pentsakorra***. 1918 aldera

Mihise gaineko olio pintura
74,5 x 53,5 cm

***Pensativa***. Hacia 1918

Óleo sobre lienzo
74,5 x 53,5 cm

### Jatorria

Erosketa. Bilduma partikularra, Gasteiz, 2005.

### Procedencia

Compra. Colección particular, Vitoria-Gasteiz, 2005.

### Erakusketak / Exposiciones

1918. Fernando. Salón Lacoste, Madrid.

1918. Exposición Fernando. Asociación Artística Vizcaína, Bilbao.

2006. Adquisiciones 2004-2005. Museo de Bellas Artes de Álava, Vitoria-Gasteiz.

### Erreferentzia bibliografikoak / Referencias bibliográficas

«Pensativa. Cuadro de Fernando García», *La Esfera*. 21/09/1918. il. col. portada.

LAGO, Silvio. «Artistas jóvenes. El pintor Fernando», *La Esfera*. 27/04/1918. il. b/n. p. [8]

MONTERO ALONSO, José. *Los años locos* (1918-1939). Madrid, 1979. il. col. p. 193.

EGUÍLUZ, Blanca de. «El pintor bilbaíno Fernando García», *Bilbao*, 34. Diciembre 1990. il. b/n. p. 12.

GARCÍA GARCÍA, Isabel. *Orígenes de las vanguardias artísticas en Madrid (1909-1922)* [tesis doctoral]. Madrid, Universidad Complutense de Madrid, 1998. il. b/n. p. 265.

ARREGUI BARANDIARAN, Ana; Sara GONZÁLEZ DE ASPURU HIDALGO: Arabako *Arte Ederren Museoa. 2004-2005eko eskuratzeak. Museo de Bellas Artes de Álava. Adquisiciones 2004-2005* [cat.]. Vitoria-Gasteiz, Diputación Foral de Álava, 2006. pp. 40, 68, 124, il. col. p. 125.

EGUÍLUZ, Blanca de. *El pintor Fernando García Alegría (1895-1952)*. Bilbao, BBK, 2007. pp. 50-53, il. col. p. 53.



## Fernando García Alegriaren artelanak Arabako Arte Ederren Museoan



***Irene Manzaneque Floresen erretratua, margolariaren emaztea***. 1943 aldera

Mihise gaineko olio pintura
92,5 x 73,5 cm

***Retrato de Irene Manzaneque Flores, mujer del pintor***. Hacia 1943

Óleo sobre lienzo
92,5 x 73,5 cm

### Jatorria

Amelia Goicoechearen dohaintza, Bilbo 2019.
Arabako Arte Ederren Museoa.
Inbentario zk.: 3441.

### Procedencia

Donación de Amelia Goicoechea, Bilbao, 2019.
Museo de Bellas Artes de Álava.
Nº inventario: 3441.

### Erreferentzia bibliografikoak / Referencias bibliográficas

MARTÍN DE RETANA, José María (dir). «Fernando [Fernando García Alegría]» en *Pintores y escultores vascos de ayer, hoy y mañana*. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1973-1983.volumen XIII, fascículo nº 123, il. col. p. 73.



***Nieves Garcíaren erretratua, margolariaren alaba***. 1943

Mihise gaineko olio pintura
92,5 x 73,5 cm

***Retrato de Nieves García, hija del pintor.*** 1943

Óleo sobre lienzo
92,5 x 73,5 cm

### Jatorria

Amelia Goicoechearen dohaintza, Bilbo 2019.
Arabako Arte Ederren Museoa.
Inbentario zk.: 3442.

### Procedencia

Donación de Amelia Goicoechea, Bilbao, 2019.
Museo de Bellas Artes de Álava.
Nº inventario: 3442.

### Erakusketak / Exposiciones

1944, Pinturas de Fernando, Casa Alonso, Bilbao.

### Erreferentzia bibliografikoak / Referencias bibliográficas

*Pinturas de Fernando*. Exposición [cat.], Bilbao, Casa Alonso, 1944, s/p.

MARTÍN DE RETANA, José María (dir). «Fernando [Fernando García Alegría» en *Pintores y escultores vascos de ayer, hoy y mañana*. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1973-1983.volumen XIII, fascículo nº 123, il. col. p. 70.

GARCÍA, María Nieves. *Memorias de la hija de un artista*. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1985. pp. 92-93.



Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava